

Familiantzako diru-laguntzak eramangarrien erosketarako

Laburpena

Eusko Jaurlaritzak, urtero, bekak ematen ditu ikasleen familiek ordenagailuak eros ditzaten. **Izena emateko epea azaroaren 10ean bukatzen da. Aholkua: izen ematea azaroaren 5a baino lehenago egitea aholkatzen da, era horretan, familiek zalantzak edukiz gero ikastetxeak laguntza eskeini diezaieke.**

Hasiera batetik bekei eskainiko zaien aurrekontua jakina bada ere, familia bakoitzak josoko duen diru-laguntza zenbatekoa izango den ezin jakin daiteke (gehienez 200€), izena emandako familien kopuruaren arabera baita. Ideia bat egiteko, 2019-2020 ikasturtean familia bakoitzari emandako diru-laguntza 200 eurokoa izan zen baina horrek es du esan nahi 2020-2021 ikasturtean kopuru berdina emango denik.

Horrez gain, kontutan eduki behar da diru-laguntza erosketa egin eta gero jasoko dela, hortaz, lehenik familiek ordenagailua erosi beharko dute eta gerora diru-laguntza jaso.

Erositako ordenagailua ikastetxeak adostutako marka eta modelo berdinekoa izan beharko da nahitaez.

Web orrialdea

Beka hauen inguruko informazioa jarraian agertzen den link-an aurki daiteke.

https://www.euskadi.eus/diru_laguntza/2020/gailudigi-itunpekoa/web01-tramite/eu/

Prozesua (laburbiduta)

Ikastetxeak urte hasieran prozesu honetan sartzeko beharrezkoa den informazio guztia jarriko du ikastetxearen web orrialdean bertan

<https://eguzkitzabhi.hezkuntza.net/eu/inicio1>.

Ondorean prozesua zein izango den argituko da.

1. **Betekizunak irakurri**
2. **Sarbide fasea:** sisteman izena ematea. Bi aukera daude
 - a. Ziurtagiri digitala bitartez.
 - b. Ziurtagiri digitala eduki ezean e-mail eta pasahitz bitartez. Era honetan eginez gero nahitaezkoa izango da eskabidea ikastetxean aurrez aurre entregatzea.

- c. Arazoak edo galderak edukiz gero, ikastetxeak prozedura hau betetzen lagunduko dio horrela eskatzen duen edozeini. Horretarako hitzordua eskatu beharko da ikastetxean.
3. **Eskaera-fasea:** Autentikazioaren ondoren, pertsonak eskabide berri baterako irispidea izango du, eta hainbat saiotan bete ahal izango du. Autentikatutako pertsonak eskabideko ikasle interesdunaren tutorea izan behar du, edo beka bat nahi duen 18 urtetik gorako norbait.
Behin eskabidea osatuta, pertsonak eskabide hori ikastetxean (administrazioa) aurkeztu ahal izango du, izapidetzen hasi daitezen
 4. **Izapidetze-fasea:** Informazioa kontsultatu eta Administrazioak ahala eskatuz gero aldatzeko aukera izango da.
 5. **Baieztapena:** Diru-laguntza jasoko denaren baieztapena eta ezetza iritsi arte itxaron.
 6. **Ordenagailuaren erosketa:** Behin baieztapena jasotakoan epea bukatu aurretik ordenagailua erosi. Ikastetxeak erabakitako marka eta modelo berdina erosi. Derrigorrezkoa izango da FAKTURA zehatza eskatu eta zentroan aurrez aurre entregatzea.
 7. **Diru-laguntza jaso:** Behin faktura entregatu eta informazio guztia izapidetzean diru-laguntza emango zaio familia bakoitzari. Diru-laguntzaren zenbatekoa eskatzaileen arabera izango da.

Xedea

Diru-laguntzak iragartzen dira gailu digitalak eskuratzeko, 2019-2020ko ikasturterako, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa egiten ari diren ikasleek erabil ditzaten.

Betekizunak:

Familiek bete beharreko betekizunak aurretik idatzitako web orrialdearen, hurrengo atalean: “Nori dago zuzendua “

Aurrekontuko zuzkidura

2020-2021 urtean 1.528.000,00 euroko aurrekontua ezarri da diru-laguntza hauentzako.

Prestazio ekonomikoa

Eskatzaile bakoitzarentzako laguntza, gehienez, 200 eurokoa izango da eta muga izango da gailu bakoitzaren fakturaren bidez justifikatutako diru-kopurua.

OHAR GARRANTZITSUA: Ikasturte honetan eskaera asko aurrakusten direnez ziurrenik diru laguntza hori 200€ baino txikiagoa izango da.

Ordainketa-modua:

Emandako laguntzen ordainketa aldi batean egingo da, deialdiari ebazpena eman ondoren eta gailuak erosi direla egiaztatu ostean. Ikasle onuradunek ikasketak egiten dituzten ikastetxeetara bidaliko da diru-zenbateko osoa.

2021-2021 ikasturteko ordenagailua

2020-2021 ikasturtean bizitzen ari garen COVID egoera dela eta, ordenagailu merkatuaren prezioek gora egin dute. Momentu honetan dauden prezioak erraz igo daitezke hemendik bi hilabetetara. Hori dela eta azpian agertutako ezaugarri eta prezioa gutxigorabeherakoak izango dira:

- Pantaila: 15,6"
- Prozesagailua: AMD 3020 1,2Ghz
- RAM memoria: 8GB
- Disko gogorra: 256Gb SSD
- Sistema eragilea: Windows 10 home

Prezioa: 350€ - 450€ BEZ-a barne

OHARRA: Eskuragarritasuna dela eta auiapatutako ezaugarri eta prezioa aldatu daitezke. Edonola ere, beste ordenagailu bat eskainiz gero, ezaugarri eta prezio berdinak edo antzekoak edukitzea saiatuko den arren, ezin da ziurtatu.